

Dagokionari:

Idazki honen bidez, nire atsekabea agertu nahi dut ***ko hainbat eta hainbat tokitan barreiatuta agertzen diren beira- eta kristal-pusken kopuru handiagatik.

25 urte daramatzat bizitzen ***n eta lehenago ez dut sekula hainbeste beira eta kristal ikusi nonahi apurtuta eta barreiatuta.

Orokorrean, edalontzi-kristalak izan ohi dira, eta neurri txikiagoan, baita botilenak ere, baina batez ere edalontziak.

Pertsona batzuk sagardotegietatik ateratzen dira bertan erabilitako edalontziarekin; beste batzuk, berriz, edariak herriko tabernetan bertan atera dizkieten pertsonak dira.

Lineako autobus inguruak eta kanpotik etorritako pertsonak ekarri dituzten busak eta minibusak gelditu ohi diren inguruak izaten dira kristal-puskarik gehien pilatzen dituztenak, sagardotegitik atera ondoren horietako asko herrira jaisten baitira mozkortzen (barkatu, dibertitzen) jarraitzeko, eta etxera orduan, autobusera igo baino lehen, edalontziak apurtzen dituzte lurrera botata.

Baina herrian kaltetutako inguru bakarrak ez dira. Kristal apurtuak herriko edozein tokitan azaltzen dira. Eta hortxe geratzen dira, egunetan ez, asteetan baizik. Badirudi garbiketa-zerbitzurik ez daukagula, eta baldin badaukagu, ez da gehiegi nabaritzen (behintzat, gai honi dagokionez).

Batzuetan, batek sentrazioa izaten du garbiketa-zerbitzuak asko ahalegintzen direla *** enparantza eta inguruak garbitzen, "periferian" gelditzen diren beste alderdi batzuk erdi ahaztuta geratzen diren bitartean. Bueno, periferikoak eta ez horren "periferikoak". ***ko autobus-geltokiaren inguruak, urrunago gabe, asteetan egon dira kristalez josita. Beraz, pentsa *** kalea, errepide zaharraren ondoko espaloia, e.a.

Txakurra daukagunok jada ez dakigu nora eraman gure animaliak paseatzera. Eta haurrak ere lurrera eroriz gero edo lurretik ibiliz gero, herrian barreiatutako kristal ugariekin zauritzeko arriskua dute.

Zer gertatzen da ***ko sagardotegien, puben eta tabernen jabeekin? Ez al daukate inongo erantzukizunik edariak kristalezko edalontzien ordez plastikozko edalontzietan ateratzeko, ordu jakin batzuetatik aurrera edota alkoholaz bapo jartzen jarraitzera euren establezimenduetara joaten diren kuadrillen eta pertsonen egoera zein den?

Asteburu bakoitza gero eta okerragoa da, aurreko asteburuetakoa kristal-puskei hurrengo asteburuakoa gehitzen zaizkielako.

Beira biltzeko edukiontzien inguruak ere kristal-puskaz beteta egon ohi dira, hor behintzat edukiontzien perimetrora mugatuta egoten badira ere (gutxi gorabehera). Baina berdin dio, leku horiek ere ez baitituzte gehiegi garbitzen. Apurtutako kristal-zatiek asteak eta asteak eman ditzakete bertan, inork jaso gabe.

Ez dakit, beharbada garbiketa-zerbitzuek aspiragailu-mota industrialen bat beharko lukete mota horretako hondakinak jasotzeko: kristalak, tamaina txikiko beirak... Edo, dagoeneko edukiz gero, lan hori agian pixka bat hobeto kontrolatu beharko litzateke.

Txakur-jabe batzuk ezagutzen ditut, zeinen animaliak hanketan eta kuxinetan zauritu egin diren, kristal apurtuen eta beiren erruz. Nori pasatu behar diogu al baitariaren eta kalte-ordainen faktura? Udalari? Herriko ostalaritzakoei? Sagardogileei? Edo garbiketa-zerbitzuari?

Nik ondokoa proposatuko nuke arazo hau konpontzeko edo leuntzeko:

- Ordenantza bat ateratzea, asteburuetan edariak plastikozko edalontzietan bakarrik atera ahal daitezen.
- Ordenantza bat ateratzea, lanegunetan, arratsaldeko zortzietatik aurrera, edariak plastikozko edalontzietan bakarrik atera ahal daitezen.
- Sagardotegietan, gazte-koadrilekin gehienbat, plastikozko edalontziak bakarrik erabiltzea.
- Garbiketa-zerbitzua indartzea edota hobeto kontrolatzea.
- Beharrezkoa balitz, garbiketa-zerbitzua aspiragailu industrial batez hornitzea, beira-zatikiak errazago bil ditzaten.

- Aipatutako neurri guztiek huts eginez gero, kristalezko edalontzien erabilera udalerrri osoan debekatzea, jendea bazkaltzeko edo afaltzeko eseri ohi den jatetxe tradizionaletan izan ezik (zentzu horretan sagardotegiak ez dira jatetxe tradizionalak, sagardotegiak baizik).
- Ordenantzak betetzen direla ziurtatzeko neurriak hartzea; zeren, paper bustia izan daitezen, horretarako ez da behar ordenantzak ateratzeko molestiarik hartzea ere.